


# Puy de Fou: historia berrikusten ez duen historia-parkea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**G**uadalete ibaia (Betika), 711. Guadaleteko guduan musulmanek bisigodoak mendean hartu zituzten. Roderiko Iberiar penintsulako azken errege bisigodoa hil zen eta musulmanen agintaldia abiatu zen horrenbestez. Eta, kondairaren arabera, Septemeko (egungo Ceuta) Don Julian kondearen alaba Florinda *La Cava*-k eragina izan zuen gertakizun horretan.

Egun batez, Toledoko gortean, Florindak bainua hartzea erabaki zuen bere dontzeilekin, Roderiko hari begira zegoe-la konturatu gabe. Erregeak burua galdu omen zuen eta, Florindarekin obsesionatuta, azkenean, bortxatu egin zuen. Beste bertsio batzuen arabera, Florindak berak trikimailu maltzurrez seduzitu omen zuen Roderiko (*La Cava*-k “emakume txarra” edo “prostituta” esan nahi du). Bertsioak bertsio, Florindak aitari desohorearen berri eman zionean, Don Julianek, musulmanekin bat egitea eta bisigodoen aurka borrokatzea erabaki omen zuen.

Hori guztia benetan gertatu zen frogarik ez dute aurkitu historialariek, eta bisigodoen gainbehera azaltzeko kontakizun moralizatzailetzat dute. Baina Toledoko Puy de Fou historia-parkeak, garai hartako aldaketa sakonen piztailea irudikatzen, musulmanak eta emakumeak gaiztotzat edo arazoaren kausatzat eta bisigodoak zein gizonak beren apektak kontrolatu ezin dituzten biktimatzat jotzen dituen kondaira hori aukeratu du.



Puy de Fou historiari buruzko parke tematikoa 1978an abiatu zen Frantziako Loirerrian, izen bereko gazteluaren inguruan. Enpresa hori beste parke bat egiten ari da Toledon, ateak 2021ean zabalduko dituen. Baina, aurrerapen moduan, lehen ikuskizuna abian da. “Toledoren ametsa” izenburupean, hiriaren eta, orokorrean, Iberiar penintsularen 1.500 urteko historiari egiten zaio errepasoa. Eta, esan bezala, musulmanen konkista Florinda *La Cava*-ren kondairaren bidez azaltzen du.

Iraganeko gertakizunen erreferentziaz josita daude toki askotako hainbat tradizio eta festa, oinarri historiko zalantzazkoa duten edota zenbait kolektibo gutxiesten dituzten elementuak barne. 2008an, esaterako, Antzuolako

Mairuaren Alardea egokitu zuten, musulmanak umiliatzen zituzten elementuak kenduta, baina oinarri historikoari eutsiz. Eta emakumeek iraganeko gertakizunetan zein egungo ospakizunetan duten parte-hartzea ezbaian dago han eta hemen. Baina historia oinarri duen Puy de Fou proiektu berri erraldoian ez.

2019ko maiatzean proiektua aurkeztu zutenean, Puy de Fouko kontseilari ordezkari Erwan de Villeon-ek esan zuen kontakizunetan irizpide historikoak kontuan hartzen dituztela, baina narrazioak eta emozionalak ere bai. “Ez gara historialariak” gaineratu zuen. Baina historia saltzen dute, eta bisitari gehienek historiari buruzko ezagutzan eragin handiagoa eta zuzenagoa izango dute edozein historialaririk baino. ●

## ...eta ingurumen arauak ere betetzen ez dituenak

**P**uy de Fou enpresak eredu ekonomikoa berezia du: %100 autofinantzatua dago eta ez du dirulaguntza publikorik jasotzen. Eta ingurumenari garrantzi handia ematen dio: CO2 igoerak gutxitzeko eta ur zikinak berreskuratzen ahalegina egiten du. Baina, Espainiako proiektuan behintzat, baldintza horiek erabat ez direla betetzen salatu dute Toledoko hainbat elkarte

eta talde ekologistek, Queremos Saber la Verdad del Puy du Fou (Puy de Fouri buruz egia jakin nahi dugu) mugimenduan bat eginda. Dirulaguntza zuzenik ez, baina Gaztela-Mantxako Gobernuak proiektuari arauz kontrako baimen publikoak eman dizkiotela diote. Tajo ibai ertzeko eremu hori legez babestuta dago, daukan balio natural eta arkeologikoagatik. Bestalde, proiektua onar-

tzeko interes bereziko proiektuen araua erabiltzea konstituzioaren kontrakoa dela salatu dute. Eta, gainera, lehen ikuskizuna martxan jarri denean ikusi dute suzirik eta argiek ere ingurumena babesteko arauak hausten dituztela: suteen kontrako legeak ez dituzte betetzen eta espezie babestuei kalte egiten dien argi eta soinu kutsadura eragiten dute. ●